Gizarte Ekintza
DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN
Acción Social
Urdaneta, 13 | Tel. 943481400 | www.donostia.eus
20006 Donostia / San Sebastián

# GIZARTE EKINTZAKO KONTSEILU SEKTORIALA

# CONSEJO SECTORIAL DE ACCIÓN SOCIAL

# BILERA-AGIRIA / ACTA

**EGUNA / DÍA:** 2021eko ekainaren 28a

**ORDUA / HORA:** 16:00

**LEKUA / LUGAR:** Ernest Lluch Kultur Etxearen Areto Nagusia / Salón de actos de la Casa de Cultura de Ernest LLuch

**BATZAR MOTA / SESIÓN:** Ohikoa / Ordinaria

## BERTARATUTAKOAK / ASISTENTES:

Asociación gipuzcoana de epilepsia- Alfonso López de Etxezarreta

AFAGI –Koldo Aulestia

Asociación española contra el cancer/ AECC- Josune Alcain

ARRATS- Amaia Lasheras

ASADE- Mª Eugenia Pardo

ATECE- Lourdes Carrasco

ATZEGI- Patricia Ayo

AVAIM- Hortensia González

Camelamos Adiquerar-Susana Mouron

CARITAS- Itziar Subinas

CRUZ ROJA- Elena Luquin

ELKARTU – Mikel Malcorra

EMAÚS- Javier Sancho

ERROAK-Concha Clavero

GENE- Beatriz Alesanco

GUREAK - Mariano Cortes

Gipuzkoako Itxaropen Telefonoa- Maite González

GUREAK- Mariano Cortés

HAURRALDE FUNDAZIOA- Patricia Viviana Ponce

HELDUEN HITZA- José Mª Elberdin

NAGUSILAN – Jesus Mari Zaldua

ZORROAGA Fundazioa- Pablo Garcia

EAJ/PNV- Jaione Hervas

EH BILDU- Olaia Duarte

LEHENDAKARIA- Aitziber San Roman

IDAZKARIA – Nora Zugasti

Gizarte Ekintzaren Zuzendaritza / Dirección de Bienestar Social - Garikoitz Agote

## ESAN-EGINAK / DESARROLLO DE LA REUNIÓN

| | |
|---|---|
| **1. Aurreko bilkuraren akta irakurtzea, zuzentzea eta, bidezkoa bada, onestea**<br><br>Eragozpenik gabe onetsi dute akta.<br><br>**2. Gizarte Ekintza arloari eragiten dieten Partaidetza aurrekontuen proposamenak**<br><br>Aitziber San Roman zinegotziak bozkatzeko epea atzo amaitu zela jakinarazi du, eta, ondorioz, laster izango dutela emaitzaren berri. Zehazki, Gizarte Ekintzaren atalak, 93 proposamenetatik, zortzi proposamen jaso ditu. Zinegotzi ordezkariak azaldu du lehenik balorazio politikoa egingo dutela, gero balorazio teknikoa, eta, azkenik, herritarrek hautatutako proposamenen artean bozkatuko dutela. Jasotako proposamenetatik, oinarrizko elikadura beharrei buruzkoak ziren bi. Aitziberrek argitu du proposamenak ez duela pasatu lehen iragazkia, jantoki sozialak ez baitu betetzen Gizarte Ekintzaren atalak bilatzen duen arretaren irizpidea. Zehazki, atalak herritar zaurgarrienak espazio normalizatuetan integratzea bilatzen du, eta jantoki sozialak ez dio erantzuten espazio normalizatuetan integratzeko eta elkarreragiteko eredu horri. Zinegotziak esan du adinekoen arretarekin lotutako hiru proposamen aurkeztu zituztela eta haietako batek iragazi guztiak pasatu dituela. Gainerakoei zehaztasuna falta zitzaien, edo bazeuden beste aukera batzuk, eta gogorarazi du Altzako Barrutiak, adibidez, hiru etxe dituela. Zehazki, onartu den proposamena Antiguako erretiratuen etxea handitzeari eta konpontzeari buruzkoa da. Horrez gain, Hizkuntzaren Nahasmendu Espezifikoaren Elkarteak erakusketa bat egiteko proposamen bat egin du. Aitziberrek azaldu du oso proposamen interesgarria zela, baina azkenean Udaleko beste atal bati esleitu zaiola. Anbulatorioetan fisioterapeutak kontratatzeko beste proposamen bat ere jaso dute, baina iritzi diote hori ez dela Gizarte Ekintzaren eskumenekoa. Azkenik, nork bere autoa konpontzeko prestakuntza ibilbide bat jartzeko proposamena jaso dute, baina ez du oniritzi teknikoa jaso.<br><br>Amaitzeko, zinegotzi ordezkariak adierazi du Antiguako erretiratuen etxea eraberritzeko proposamena aurrera ateratzea nahiko lukeela. | **1. Lectura del acta de la reunión anterior, rectificación y si procede, aprobación**<br><br>Es aprobada el acta, sin ninguna objeción.<br><br>**2. Información propuestas presupuestos participativos que afectan al Área de Acción Social**<br><br>La Concejala Delegada Aitziber San Roman informa que ayer finalizó el plazo para votar y que por tanto, próximamente se sabrá el resultado. En concreto, el Área de Acción Social ha recibido 8 propuestas de las 93 propuestas totales. Explica la Concejala Delegada que en primer lugar, procede una valoración política, a continuación una valoración técnica y por último, los ciudadanos deben votar entre las propuestas seleccionadas. De las propuestas recibidas 2 concernían a cubrir las necesidades básicas de alimentación. Aitziber aclara que la propuesta no superó el primer filtro ya que el comedor social no sigue el criterio de atención que busca el Área de Acción social. En concreto, el área busca la integración de los ciudadanos más vulnerables en espacios normalizados y el comedor social no responde a este modelo de integración e interacción en espacios normalizados. Prosigue la concejala detallando que se presentaron 3 propuestas dirigidas a la atención de personas mayores de las cuales 1 ha pasado todos los filtros. A las demás les faltaba concreción o ya existían alternativas y recordó que el Distrito de Alza por ejemplo cuenta con 3 hogares. En concreto, la propuesta aceptada es la relativa a la ampliación y arreglo del hogar del jubilado del Antiguo. También se recibió una propuesta de la Asociación TEL (Trastorno Específico del Lenguaje) para hacer una exposición. Aitziber explica que era una propuesta muy interesante pero que finalmente se asignó a otra área del Ayuntamiento. También se recibió otra propuesta para la contratación de fisioterapeutas en los ambulatorios pero se consideró que no era competencia de Acción Social. Por último, se recibió una propuesta para implantar un itinerario formativo relacionado con la autoreparación de coches pero técnicamente no se le dio el visto bueno.<br><br>Para terminar, la Concejala Delegada muestra su deseo de que la propuesta para reformar el Hogar del Jubilado del Antiguo salga adelante. |

Gizarte Ekintza
Acción Social

| | |
|---|---|
| **3. 2020ko Memoriaren aurkezpena** | **3. Presentación de la Memoria 2020** |
| Garikoitz Agote Gizarte Ekintzako zuzendariak 2020ko memoria aurkeztu du, *Power Point* baten laguntzaz | Garikoitz Agote Director del Área de Acción Social presente la Memoria del 2020 con la ayuda de un power point. |
| Ezer baino lehen, Garikoitzek gogorarazi du 2020. urtea, pandemiaren ondorioz, ezohikoa izan dela, eta horrek, halabeharrez, eragina izan duela gizarte premien gehikuntzan eta zerbitzuen prestazioan bertan, horietako asko egokitu edo hilabeteetan eten egin behar izan baitituzte. | Antes de nada, Garikoitz recuerda que el año 2020, debido a la pandemia, ha sido inusual y que ello inevitablemente impactó tanto en el incremento de las necesidades sociales como en la propia prestación de los servicios ya que muchos estuvieron que adaptarse o suspenderse durante meses. |
| Zuzendariak azaldu du Gizarte Ekintzaren Zuzendaritzak helburu nagusi hauek izan dituela 2020an: | Prosigue el Director explicando que los objetivos principales del Área de Acción Social en el 2020 fueron los siguientes: |
| 1. Udal gizarte zerbitzuak Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Zerbitzuen Euskal Sisteman sartzeko atea izatea.<br>2. Pandemiaren testuinguruan sortutako gizarte premiei erantzutea. | 1. Que los servicios sociales municipales sean la puerta de entrada al sistema vasco de servicios sociales de la Comunidad Autónoma Vasca.<br>2. Dar respuesta a las necesidades sociales urgentes surgidas en el contexto de la pandemia. |
| Garikoitzek, urte horretatik, alderdi hauek azpimarratu ditu: | Garikoitz subraya los siguientes aspectos del año: |
| 1. 2020an 16.000 €-tik gora familia artatu dira. Kopuru handiena 2002tik.<br>2. COVIDaren ondorioz, ezohiko hainbat neurri hartu dira. Horretarako, 1,5 milioi euroren aurrekontua izan duen talka plan bat egin da.<br>3. Udaleko beste atal batzuekin batera egindako Lagunkate ekimenaren bidez, konfinamenduan ia 18.000 dei egin zitzaizkien 65 urtetik gorako herritarrei.<br>4. 10,6 milioi bideratu dira gizarteratzeko laguntzetara, eta, beraz, aurreko urteetako zenbatekoa handitu da.<br>5. Etxez etxeko laguntza zerbitzua etenik gabe eman da, baina orduak murriztu egin dira, erabiltzaile batzuek zerbitzua eten dutela eta.<br>6. Adingabeei arreta ematen jarraitu da. Esku-hartze goiztiarreko kasuak % 7 baino gehiago ugaritu dira, baina babesgabetasun kasuak eta Foru Aldundira bideratutako kasu larrienak mantendu egin dira. Puntu honetan, atalaren zuzendariak azpimarratu nahi izan du esku-hartze goiztiarreko kasuak ez direla babesgabetasun kasuak, baizik aldez aurreko prebentzio fase bat dela. Beraz, kasuak goiz detektatzeak zuzenean eragiten du babesgabetasun kasu larriagorik ez izate horretan, eta, hortaz, positiboa da.<br>7. 2020an zerbitzu zorroa osatu da.<br>8. 2020an, aurrekontua % 2,05 hazi da, eta % 18,62ko hazkunde metatua izan da azken lau urteetan.<br>9. Memorian jasotako jarduerak gizarte ekintzako | 1. El año 2020 se atendieron más de 16.000€ familias. el mayor número desde el 2002.<br>2. Como consecuencia del Covid se tomaron varias medidas inusuales. Para ello se llevó a cabo un plan de choque que contó con un presupuesto de 1,5 millón €.<br>3. A través de la iniciativa Lagunkate llevada a cabo junto con otros Departamentos del Ayuntamiento, durante el confinamiento se efectuaron casi 18.000 llamadas a ciudadanos mayores de 65 años.<br>4. Se destinaron 10,6 millones en ayudas de inclusión social aumentando así el importe de otros años.<br>5. El servicio de ayuda domiciliaria se mantuvo de forma ininterrumpida aunque las horas disminuyeron ya que algunos usuarios suspendieron el servicio.<br>6. Se mantuvo la atención a los menores. Se aumentó en más de un 7% los casos de intervención precoz, pero se mantuvieron los casos de desprotección y los casos más graves derivados a la Diputación Foral. En este punto, el Director del área quiso remarcar que los casos de intervención precoz no son casos de desprotección sino que se trata de una fase previa preventiva. Por consiguiente, el hecho de detectar los casos tempranamente incide directamente en evitar el desarrollo de casos de desprotección más graves y por tanto es algo positivo.<br>7. En el año 2020 se completó la cartera de servicios.<br>8. En el año 2020 hubo un incremento presupuestario de 2,05% y un crecimiento acumulado del 18,62% en los últimos cuatro años.<br>9. El desarrollo de las actividades recogidas en la memoria fue posible gracias a la contribución de más de 520 profesionales (entre trabajadores municipales y |

| | |
|---|---|
| jarduеretan lan egin duten 520 profesional baino gehiagoren ekarpenari esker garatu ahal izan dira (udal langileen eta hirugarrenen bidez kontratatutako profesionalen artean). Zuzendariak eskertu egin du langile kolektibo horren ahalegina eta profesionaltasuna, egoera bereziki zailean lan egin baitute. | profesionales contratados a través de terceros) que trabajaron en actividades de acción social. El Director agradece el esfuerzo y profesionalidad de este colectivo de trabajadores, que realizó su trabajo en circunstancias especialmente difíciles. |
| Sarrera amaituta, Garikoitzek memoriaren laburpena aurkeztu du. Gogorarazi du Udalaren webgunean argitaratuta dagoela. Halaber, jakinarazi du aktarekin batera bidaliko dutela aurkezpena. | Finalizada la introducción, Garikoitz presenta el resumen de la memoria. Recuerda que está publicada en la web municipal. Asimismo, informa que la presentación se enviará junto con el acta. |
| Ulertzen du, pandemiaren ondorioz, zentroak itxita egon direla, eta egungo egoera zein den galdetu du. Amaitzeko, galdetu du ea atalean egungo ereduaren balorazioa egin den. | Mikel Malcorra toma la palabra y recalca que los puntos relacionados con dependencia e incapacidad están en rojo. Entiende que debido a la pandemia los centros estaban cerrados y pregunta cuál es la situación actual. Para terminar, pregunta si en el Área se ha llevado a cabo una valoración del modelo actual. |
| Elkartuko ordezkariari erantzunez, zinegotzi ordezkariak azaldu du oraindik ez dutela 2021eko bilakaerari buruzko daturik, baina laster egingo dela lehen 6 hilabeteen ebaluazioa.<br>Ereduaren balorazioari dagokionez, Aitziberrek uste du hausnarketa egin behar dela, baina egia da gizarte babeseko sistemari lotuta dauden esparru eta erakunde guztietatik egin behar dela hausnarketa, eskumena guztiona baita. Azken batean, lanean jarraitu behar dute. | En respuesta al representante de ELKARTU, la Concejala delegada explica que todavía no tienen los datos de la evolución de 2021 pero que próximamente se llevará a cabo la evaluación de los primeros 6 meses.<br>En cuanto a la valoración del modelo, Aitziber se muestra de acuerdo en que es necesaria una reflexión si bien es cierto que la reflexión debe llevarse a cabo desde todos los ámbitos y todas las instituciones vinucladas con el sistema de protección social ya que la competencia es de todos. En definitiva, que hay que seguir trabajando. |
| Amaitzeko, Aitziberrek jakinarazi du 2021eko aurrekontuan, EH Bilduk aurkeztutako zuzenketaren ondorioz, 100.000 € handitu dela elikadurarako partida eta 28.000 € handitu dela elkarteentzako laguntzetarako aurrekontua. | Para terminar Aitziber informa que en el presupuesto 2021 como consecuencia de la enmienda presentada por EH Bildu se ha aumentado en 100.000€ la partida destinada a la alimentación y se ha aumento en 28.000€ el presupuesto destinado a las ayudas a las asociaciones. |
| **4. Gipuzkoako Foru Aldundiaren Hariak bakardadearen kontrako estrategia aurkeztea**<br><br>Gipuzkoako Foru Aldundiko Adinberriren izenean, Rakel San Sebastianek eta Ainhoa Becerrak HARIAK estrategia aurkeztu dute. Pandemia baino lehen hasitako lana dela azaldu dute, eta egindako lanari balioa eman nahi diote. Udalerriekin eta erakundeekin batera gauzatutako estrategia da. Nabarmendu dute ekintzara bideratutako lana dela, prebentzioaren ikuspegitik ekimen berritzaile bat bultzatu nahi duena. Gaur egun, bakardadea erronka bat da. Bakardade sentimendua edozein adinetan eta edozein sektoretan eduki daitekeelako.<br>Jakinarazi dute dokumentua partekatuko dutela, bertaratutakoek informazioa eskuratu ahal izan dezaten. | **4. Presentación de la estrategia de la Diputación Foral de Gipuzkoa ante las soledades HARIAK**<br><br>En representación de Adinberri de la Diputación Foral de Gipuzkoa Rakel San Sebastian y Ainhoa Becerra presentan la estrategia HARIAK. Explican que se trata de un trabajo que se comenzó antes de la pandemia y quieren poner en valor el trabajo realizado. Se trata de una estrategia llevada a cabo junto con los municipios y entidades. Recalcan que se trata de un trabajo enfocado a la acción que busca impulsar una iniciativa innovadora a través de un punto de vista preventivo. Hoy en día la soledad es un reto. Hablan de soledades en plural ya que el sentimiento de soledad se puede dar a cualquier edad y en cualquier sector.<br>Informan que compartirán el documento para que los presentes puedan acceder a la información. |

| | |
|---|---|
| Honekin batera doa HARIAK estrategiarako esteka:<br><br>GAZT: https://www.adinberri.eus/es/-/proceso-participativo-para-la-elaboraci%C3%B3n-de-hariak-la-estrategia-de-gipuzkoa-ante-las-soledades-<br><br>EUS: https://www.adinberri.eus/eu/-/-hariak-bakardadeei-aurre-egiteko-gipuzkoako-estrategia-osatzeko-partaidetza-prozesua | Se adjunta el enlace a la estrategia HARIAK:<br><br>EUS: https://www.adinberri.eus/eu/-/-hariak-bakardadeei-aurre-egiteko-gipuzkoako-estrategia-osatzeko-partaidetza-prozesua<br><br>CAS: https://www.adinberri.eus/es/-/proceso-participativo-para-la-elaboraci%C3%B3n-de-hariak-la-estrategia-de-gipuzkoa-ante-las-soledades- |
| Amaitzeko, azaldu dute bakardadea gai konplexua dela, gaur egun oraindik oso gutxi dakigula horretaz, eta, beraz, ezinbestekoa dela fenomeno hori identifikatzea eta horretan sakontzea. Bertaratutako erakunde guztiak gonbidatu dituzte azterketan parte hartzera. Azterlana amaitutakoan, ekintza zehatz batzuk egingo dira.<br><br>Haurralde elkarteko ordezkariak hitza hartu du eta bi alderdi azpimarratu ditu. Lehenik eta behin, bakardadea ikusaraztearen garrantzia. Arazoa da gaur egun 55 urtetik aurrera zahartzarotzat hartzen dela, nahiz eta hala ez izan, eta, gainera, zahartzaroa negatibotzat hartzen dela. Bigarrenik, pandemiaren garaian elkarteetako boluntarioek egindako lana azpimarratu nahi du, haiek jarri baitziren lanean.<br><br>Rakel San Sebastianek azaldu duenez, 55 urteren adina Europak jartzen du, eta, hain zuzen ere, estigmazioa kentzeko erronka dago. Zahartzaroa etapa heterogeneoa da, eta bizitzako beste etapa baten moduan hartu beharko litzateke.<br><br>Aitziber San Romanek uste du foro hori dela estrategia hori aurkezteko lekurik egokiena, hainbat erakunde biltzen baitira hor. Gainera, bakardadea egoera askotan gertatzen dela kontuan hartuta, bakoitzak kontzeptu bat izan dezake hartaz. Amaitzeko, Adinberrirekin harremanetan jartzera animatu du jendea.<br><br>Zorroagako ordezkariak azaldu du informazio asko dagoela eta, beraz, zaila dela zerbait esatea, nahiz eta aitortu duen estrategia oso interesgarria dela.<br><br>Rakel San Sebastianek badaki informazio asko dagoela eta dokumentu osoa irakurtzea gomendatu du; horretarako, esteka emango dute. | Para terminar, explican que la soledad es un tema complejo sobre el cual hoy en día todavía se sabe muy poco y por lo tanto la identificación y profundización sobre este fenómeno es imprescindible. Invitan a todas las entidades presentes a participar en el estudio. Finalizado el estudio se llevarán a cabo unas acciones concretas.<br><br>La representante de la Asociación Haurralde toma la palabra y recalca dos aspectos. En primer lugar, la importancia de visibilizar la soledad. El problema es que actualmente a partir de los 55 años se considera vejez cuando no es así, entendiendo además la vejez como algo negativo. En segundo lugar, quiere recalcar la labor llevada a cabo por los voluntarios de las asociaciones durante la pandemia que fueron quienes se pusieron manos a la obra en primer lugar.<br><br>Rakel San Sebastian explica que la edad de 55 años la marca Europa y que efectivamente existe un reto de desestigmacización. La vejez es una etapa heterogénea y debería considerarse una etapa más de la vida.<br><br>Aitziber San Roman considera que este foro es el lugar idóneo para presentar esta estrategia ya que se reúnen entidades de diversa índole. Además, teniendo en cuenta que la soledad se da en muchas situaciones cada uno puede tener un concepto diferente. Para concluir, anima a contactar a Adinberri.<br><br>El representante de Zorroaga explica que es mucha información y que por lo tanto es deificil decir algo aunque reconoce que se trata de una estrategía muy interesante.<br><br>Rakel San Sebastián entiende que se trata de mucha información e invita a leer el documento completo para lo cual facilitarán el link. |

| | |
|---|---|
| **5.- Galderak eta eskaerak**<br><br>Zorroagako ordezkariak memorian erabilitako "zahar" hitza "zuzentzeko eskatu du. Aitziberrek eta Garikoitzek barkamena eskatu dute.<br><br>Horrenbestez, bilera 18:00etan amaitu da. | **5 Ruegos y pregunta**<br><br>El representante de Zorroaga invita a corregir el " termino " anciano" utilizado en la memoria. Aitziber y Garikoitz se disculpan al respecto.<br><br>A las 18h se da por finalizada la reunión. |